

Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina Hezkuntza Departamentua **2023/2024**

Txertaketa-kanpaina **2023ko urriaren 23tik abenduaren 1era** bitartean egingo da, eta lehentasuna izango dute 80 urte eta gehiagoko pertsonak eta erakundeetan daudenak.

1. Nafarroako Gobernuko Osasun eta Hezkuntza Departamentuen arteko lankidetzaren ondorioz, gripearen aurkako txertaketa-kanpaina **ikastetxe publikoetako irakasleei** eskaintzeko, **gripearen aurka soilik** txertatzeko aukera eskainiko da honako toki hauetan:
 - **Hezkuntza Departamentuaren Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalean, ISPLNaren eraikinean, Landaben.** Ez da beharrezkoa hitzordua eskatzea. Hau da txertaketa-ordutegia:
 - **Astelehenetik ostegunera: 11:30etik 14:30era.**
 - **Ostiraletan: 08:00etatik 14:30era.**
 - Norbere osasun-etxean edo lantokitik hurbilen duen osasun-etxean. Horretarako, hitzordua eskatu behar du txertoa hartuko duen osasun-zentroan.
 - 1.1.- **Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko irakasleak eta Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrekoak (MUFACE), osasun-laguntza publikoa hautatu dutenak:** doan emango zaie txertoa.
 - 1.2.- **Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorreko (MUFACE) irakasleak, ERAKUNDE PRIBATUEN bidez osasun-laguntza jasotzea erabaki dutenak:**

Jarraitu beharreko prozedura kontsultatu beharko dute **beren osasun-erakundearekin**, bai eta txertoa doan emango zaien beren erakunde zentroak ere, **medikuak hala agindu ondoren.**

Osasun publikoko zentro batera joanez gero txertoa jartzera, eta zentro hori norbere erakundeak itundutako zentro bat **EZ** bada, **36,27 €** fakturatuko zaizkio "*erizaintzako balorazioa*" eta "*txertoa ematea*" kontzeptuengatik.

Ordaindu beharreko zenbatekoa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 20ko 1564/2018 Ebazpenak zehaztutakoa da. Ebazpen horretan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako zerbitzuengatik tarifa ezartzen dira.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzutik, **Hezkuntza Departamentuko langile guztiak animatzen ditugu gripearen aurka txertatzera.** Haurdunaldiko edozein hiruhilekotan haurdun dauden emakumeak eta erditze ondoan dauden emakumeak barne, erditzearen ondorengo 6 hilabeteak arte, haurdunaldian txertorik hartu ez bazuten.

Gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketarako xede-populazioa:

- 60 urte edo gehiagoko pertsonak (**1. taldea**).
- 60 urtetik beherakoak, gripearen ondoriozko konplikazioak izateko arrisku handia dutenak (**2. taldea**).
- Immunogutzitze handia duten pertsonekin bizi diren pertsonak. Era berean, 1. eta 3. puntuetan definitutako arrisku handiagoko beste gaixotasun batzuk dituzten pertsonekin eta adin handiko pertsonekin bizi direnak ere sartu ahal izango dira (**3.1 eta 3.2 taldeak**).

Gripearen aurkako txertaketa-protokoloaren ESTEKA 2023 – 2024 (Osasun Publikoko buletina): <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/AECCD760-AB2A-4841-818A-FA53478FD6DC/488279/BOL127INT.pdf>

2. Hezkuntza Departamentuko irakasleek eta irakasle ez diren langileek gripearen txertoarekin batera eskaintzen den koronabirusaren txertoa hartzeko aholkua badute, SNS-On txertatzeko hitzordua eska dezakete, urriaren 3tik azaroaren 30era, Internet bidez (citasalud.navarra.es), honela:
 - Iruñeko eta Lizarrako eremuak: 948 370 130 telefonoa (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 21:00etara).
 - Tuterako eremua: 948 370 140 telefonoa (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara).